



«Euskaltzaindiari lidergoa hartzea proposatzen diot; antola ditzala estrategiak eragile guztiekin»

Patxi Saez Soziolinguista • 10

OSTIRALA, 2015EKO URRIAREN 16A • XIII. URTEA • 3.821. ZENBAKIA • WWW.BERRIA.EUS

1,30 EURO



Artur Mas, auzitegian deklaratu eta atarira atera berritan, atzo. Hura babestera bildutako en artean, aginte makilak erakusten ari dira udaletako ordezkariak. ANDREU DALMAU / EFE

## Bere bizkar hartu du ardura

Artur Masek epaileen aurrean deklaratu du berea dela 2014ko azaroko galdeketaren erantzukizuna, boluntarioek antolatu zutela gogoratuta; zazpi urteko inhabilitazioa arriskatzeko du • Ehunka herritar eta alkatek babestu dute • 2

### Harian 2

#### PPk 24 orduan jarri du Quirogaren ordezkia: Alfonso Alonso

Arabako PPko buru eta Espainiako Osasun ministro denak hartuko du EAEko PPren gidaritzatza. Asakatasun eta Bizikidetzatza lantaldearen mozioa aurkeztu zuenean Arantza Quiroga estu hartu zute netakoa bat izan zen Alonso. • 4

#### Euskarak barne produktu gordinaren %4,2 sortzen du, Jaurlaritzaren hitzetan

Euskara sustatzeko politika maiz kritikatzeko dela, dirua «xahutzeta» dela eta gisakoak esanez, baina okerra dela esan du Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak. Euskararen eragin ekonomikoa aztertu du Jaurlaritzak. Ondorioa: 56.000 lanpostu eta 2.801 milioi euroko aberastasuna sortzen ditu. • 11

#### Emakume Nekazarien Estatutua aho batez onartu du legebiltzarrak

Lehen sektorean andrazkoek bizi duten bazterketa aldatzeko tresna bat sortu du Eusko Legebiltzarrak, aho batez erabakita. «Arau aitzindaria» izango dela esan du Jaurlaritzak, Europar parerik gabea. EHNE sindikatuak, aldiz, esan du estatutuak ez dioela ezer berririk, eta susmoa agertu du ez duela aldatetarik ekarriko. • 16

#### «Tentsio jasangaitza» Jerusalemgo kaleetan

Urte berri musulmana liskar, borroka eta tentsio giroan hasi dute palestinarrek. Azkeneko bi astetan 41 pertsona hil dira –34 palestinar eta zazpi israeldar–, indarkeriaren eraginez, eta kalean beldurra sumatzen da. Israelek hartu dituen neurriak zigor kolektibo bat direla salatu dute palestinarrek, eta Hamasek Suminaren Egunera deitu du gaurko. • 18

### Kultura 28

#### Juan Garziak eskuratu du itzulpenen Euskadi saria

Shakespeareren *Sonetoak* goratu dute. Joseba Zulaika eta Ana G. Lartitegi ere saritu dituzte. • 28

### Hitza

• GEHIGARRIA